

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

23/2014 Foru Araua, uztailaren 9koa, Joko Jardueren gaineko Zergari buruzkoa

Arabako Biltzar Nagusiek 2014ko uztailaren 9an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

23/2014 Foru Araua, uztailaren 9koa, Joko Jardueren gaineko Zergari buruzkoa.

ZIOEN AZALPENA

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak erabaki du aldaketa egitea Ekonomia Itunean, besteak beste joko jardueren gaineko zerga adosteko.

Ituntze hori Arabako Biltzar Nagusiek berretsi dute, otsailaren 26ko 4/2014 Foru Arauaren, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berrestekoaren, bidez.

Ekonomia Itunaren 36. artikulua arabera, joko jardueren gaineko zerga itundutako tributua da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantiboak eta formalak aplikatuko zaizkio. Hala ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zergaren tasak igo ditzakete Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen tasak baino ehuneko 20 handiagoak izateraino, gehienez ere, operadoreek, antolatzaileek edo zerga horren kargapeko jarduera dutenek egiten dituzten jardueri dagokienez, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute.

Aurrekoarekin bat, foru arau honen bitartez joko jardueren gaineko zerga arautzen da Arabako Lurralde Historikoan.

1. artikulua. Izaera

Joko jardueren gaineko zerga zeharkako tributua da eta joko jarduerak kargatzen ditu foru arau honetan ezarritako moduan.

2. artikulua. Araudi aplikagarria

1. Ekonomia Itunaren 36. artikuluan xedatutakoaren ildotik, zerga foru arau honetan eta hura garatzen duten xedapenetan xedatutakoarekin bat etorritik eskatuko da.

2. Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

3. artikulua. Zergaren ordainarazpena

Zergadunek, zerga egoitza nonahi dutela ere, Arabako Foru Aldundiari ordainduko diote zerga, Arabako Lurralde Historikoan ekitaldian egin dituzten eragiketen zenbatekoaren proportzioan.

Ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa zehazteko, egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten jokalariek jokatu dituzten diru kopuruen pisu erlatiboari begiratuko zaio. Proportzio hori aplikatuko zaie, halaber, jokalariaen egoitza zehaztu ezin den joko modalitateen ondorioz likidatzen diren kuotei eta Espainiako lurraldeko egoiliarrek ez diren jokalariaen kuotei.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuaren eta zaldi lasterketarako Estatuaren elkarrekiko apustuaren jokalariaen egoitza zehazten ez

denean, Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du zerga baldin eta apustua Arabako Lurralde Historikoan dagoen salmenta puntu batean egiten bada.

4. artikulua. Zerga gaia

1. Honako joko, zozketa, lehiaketa, apustu eta joko jarduera hauek baimentzea, egitea edo antolatzea izango da zerga gai, jardueraren eremua Estatua denean:

a) Loteriak, apustuak eta beste edozein joko jarduera, etorkizuneko emaitza ezezagunen mende diru kopuruak edo ekonomikoki ebaluatu daitezkeen objektuak arriskatzen badira eta parte hartzaileen artean eskualdatu badaitezke, alde batera utzita nagusiki jokalarien trebeziaren arabera jokoak diren ala soilik edo funtsean zori, enbido edo ausazko jokoak diren.

b) Diru truke parte har daitezkeen zozketak eta lehiaketak.

c) Noizbehinkako jokoak, aurreko ataletan aipatutako gainerako jokoak ez bezala esporadikoak direnak.

d) Mugaz gaindiko joko jarduerak, hau da, Espainiako lurraldetik kanpo kokatutako pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako lurraldeko egoiliarrentzat antolatzen edo eskaintzen dituzten joko jarduerak.

2. Joko kontzeptutik kanpo badaude ere, zerga gai dira, halaber, publizitate edo sustapen xedeetarako ausazko konbinazioak, horiek ere Estatuko eremukoak, Jokoa Arautzeari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 2. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran araututa daudenak.

5. artikulua. Zergapean ez dauden jokoak

Ez dira zergapetuko Estatu eremuko loteria jokoak, edozein izanda ere haiek antolatzen edo egiten dituen operadore publiko edo pribatua.

Betiere zergapean egongo dira aurreko lerroaldean aipatutako operadoreek antolatzen edo egiten dituzten beste joko guztiak, Estatu eremuko loteria izan ezik.

6. artikulua. Sortzapena

Joko jarduera baimentzen, egiten edo antolatzen denean sortuko da zerga. Aldi baterako joko jarduera bat baimentzen, egiten edo antolatzen denean, urte natural bakoitzeko lehenengo egunean sortuko da zerga, baimena lortzen den urtean izan ezik, orduan baimentze egunean sortuko baita zerga.

7. artikulua. Zergadunak

Zerga honen ziozko zergadunak dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, zerga honen kargapeko jardueren operadoreak badira edo horrelako jarduerak antolatzen edo egiten badituzte.

8. artikulua. Erantzuleak

Zergaren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira, arau orokor gisa, zerga egoitza Espainiako lurraldean duten pertsonen joko jarduerak eskaintzen dizkieten edozein bidetatik, baita jokoaren bidez mozkinak lortzen dituzten ere, bi kasuetan berdin delarik jokoaren operadoreak zein lurraldetatik diharduen, betiere ez badute egiaztatu operadoreek behar diren gaikuntza tituluekin egiten edo antolatzen dituztela joko jarduera horiek.

Era berean erantzule solidarioak izango dira, ez badute egiaztatzen aipatutako gaikuntza tituluak badirela, azpiegituretako jabe edo enpresaburuak eta informazioaren gizarteko zerbitzuen emaileak, azpiegitura edo zerbitzu horiek foru arau honetan araututako joko jarduerak egiteko berariaz erabiltzen edo baliatzen ari direla uste izateko zentzuzko arrazoiak dituztenean.

Atal honetan araututako erantzukizun horretan ez erortzeko, edozein pertsona edo entitatek Jokoaren Batzorde Nazionalaren webgunearen bitartez eskuratu ahal izango du behar adina informazio jakin ahal izateko ea jarduera batek badituen ala ez bera egiteko behar diren gaikuntza tituluak, Jokoa Arautzeari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 7. artikuluan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritakoaren arabera.

9. artikulua. Zerga oinarria

Zerga oinarriak joko motaren arabera osagai hauek izan ditzake:

a) Diru sarrera gordinak, hau da, jokoan parte hartzeko jartzen diren diru kopuruen gutzitiko zenbatekoa, eta hura antolatzearen edo egitearen ondorioz zuzenean lor daitekeen beste edozein diru sarrera.

b) Diru sarrera garbiak, hau da, jokoan parte hartzeko jartzen diren diru kopuruen gutzitiko zenbatekoa eta jokoa antolatzearen edo egitearen ondorioz zuzenean lor daitekeen beste edozein diru sarrera, ken operadoreak parte hartzaileei ordaindutako sariak. Apustu gurutzatuak badira edo zergadunek ez badituzte diru sarrera propio gisa lortzen jokatutako diru kopuruak, baizik eta, besterik gabe, irabazi dituzten jokalariei ematen bazaizkie, komisioek osatuko dute zerga oinarria, bai eta joko jarduerekin zerikusia duten zerbitzuengatik jokalariek zergadunari ordaindutako diru kopuru guztiek ere, edozein izanda ere haien izena.

Publizitaterako edo sustapenerako ausazko konbinazioetan, parte hartzaileei eskainitako sarien edo emandako onuren merkatuko balio osoa izango da zerga oinarria.

Tarifikazio osagarriko tresnen bitartez ordaintzen bada zenbatekoa, tarifikazio osagarriaren zenbatekoa hartuko da jokoan parte hartzeko jarritako diru kopuru gisa, dagokion zeharkako zerga kenduta. Tarifikazio osagarritzat hartuko da jokoan parte hartzeko jarritako diru kopuru, merkatuko balioaren arabera zehaztutako deiaaren kostua kenduta, aplikagarria denean Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluan xedatutakoa, eta ez dira kontuan hartuko, ondorio horietarako, eragiketen gaineko zeharkako zergak.

10. artikulua. Karga tasa

Tasa hauek aplikatuko dira:

1. Elkarrekiko kirol apustuak: foru arau honen 9. artikuluko a) letrako zerga oinarriaren ehuneko 22.

2. Kontrapartidako kirol apustuak: foru arau honen 9. artikuluko b) letrako zerga oinarriaren ehuneko 25.

3. Kirol apustu gurutzatuak: foru arau honen 9. artikuluko b) letrako zerga oinarriaren ehuneko 25.

4. Zaldi lasterketetako elkarrekiko apustuak: foru arau honen 9. artikuluko a) letrako zerga oinarriaren ehuneko 15.

5. Zaldi lasterketetako kontrapartidako apustuak: foru arau honen 9. artikuluko b) letrako zerga oinarriaren ehuneko 25.

6. Elkarrekiko beste apustu batzuk: foru arau honen 9. artikuluko a) letrako zerga oinarriaren ehuneko 15.

7. Kontrapartidako beste apustu batzuk: foru arau honen 9. artikuluko b) letrako zerga oinarriaren ehuneko 25.

8. Beste apustu gurutzatu batzuk: foru arau honen 9. artikuluko b) letrako zerga oinarriaren ehuneko 25.

9. Zozketak: foru arau honen 9. artikuluko a) letrako zerga oinarriaren ehuneko 20. Onura publikoko edo ongintzako deklarazioa dutenek zerga oinarri beraren ehuneko 7ko tasa izango dute.

10. Lehiaketak: foru arau honen 9. artikuluko a) letrako zerga oinarriaren ehuneko 20.

11. Bestelako jokoak: foru arau honen 9. artikuluko b) letrako zerga oinarriaren ehuneko 25.

12. Publizitaterako edo sustapenerako ausazko konbinazioak: foru arau honen 9. artikuluan halakoetarako zehaztutako zerga oinarriaren ehuneko 10.

11. artikulua. Kuota osoa

Kuota osoa da zerga oinarriari karga tasa aplikatuta ateratzen den zenbatekoa.

12. artikulua. Likidazioa eta ordainketa

Zergadunek zergaren autolikidazioa egin eta kuota ordaindu beharko dute Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen arau, eredu eta epeen arabera.

13. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Zerga honekin lotutako arau hausteak Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak eta Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 97/2008 Foru Dekretuak, zerga arloko arau hauste eta zehapenen arautegia onartzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorritz sailkatu eta zehatuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe geratuko dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 9a

Lehendakaria

JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA